



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

4 | 1999
Numéro IV

Bernard Lehete euskaldun mezenas bat Bordelen XVI. mendean

Patri Urkizu



Édition électronique

URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/1546>

DOI : 10.4000/lapurdum.1546

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 1 octobre 1999

Pagination : 107-114

ISBN : 2-84127-156-0

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Patri Urkizu, « Bernard Lehete euskaldun mezenas bat Bordelen XVI. mendean », *Lapurdum* [Ligne], 4 | 1999, Sarean emana---an 01 avril 2010, kontsultatu 29 janvier 2020. URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/1546> ; DOI : 10.4000/lapurdum.1546

Patri URKIZU

BERNARD LEHETE EUSKALDUN MEZENAS BAT BORDELEN XVI. MENDEAN

Jean Haritschelhar irakasle agurgarriari nere eskerrik beroenak adieraziz hasi nahi nuke egungo solasa, berari esker eman baintuen lehen urratsak Bordeleko Unibertsitatean, Bordeaux III-en, egun Michel de Montaigne deituan, hain zuzen, eta bertan hiru urte benetan probetxugarri eta ahantzezinak igaro.

Hori dela eta, bururatu zait lehen euskal liburu inprimatua, alegia, Beñat Detxeparek¹ idatzitako *Linguae Vasconum primitiae*, Bordelen 1545ean moldiztegitratua izan zela eta Bernard Leheteri eskainirik dagoenaren aitzakiaz, honen eta garai hartan Bordelen bizi izan ziren zenbait poeten inguruan mintzatzea, hots, Errenazimenduko poesiaz aritza.

Ez dakigun arren gauza handirik Bernard Leheteren bizitzaz, egia esan, bada-kigu zertxobait bederen. Adibidez, Alfred Lassus-ek dioskunez², Sarako familia nobletarik zela, oraindik bertako etxe eder batek izen bera daramalarik. M.A. Pegg-ek³ emaniko ohar batez jakin, badakigu, berriz, 1514. urtean Tolosan, hau da Frantziako Toulouse-n, ikasten ari zela eta bertan *lecteur* -irakurle- gisa aritu zela 1516an. Urte batzuek geroxeago abokatu zela Guyenne-ko amiralgoan (1524-1529) eta abokatu jenerala legez lanean hasi zela 1529, kargu berean jar-raikiz 1560a arte, azken hatsa 1562an eman zuelarik Bordelen.

Suertatu zaigu ere bere autografo dotorea ikustea hala nola bere seme Joanesena Bordeleko herri liburutegian, eta bidenabar Girondako Artxiboetan⁴ aurki daitezke beste zenbait albiste bere bizitzaz. Hala nola 1530.eko abuztuaren 22an hartu zuela bere lan kargua, aurrekoa, Thomas Cousinier Provence-ko Parlamentuko lehendakari bezala hautatua izan zelako⁵.

Halaberetsu badakigu bere seme Joanesi utzi ziola kargua, 1554eko martxoaren 4ean, Fontainebleau-n sinatu agiriaren arabera, baina honek ezin izan zuela karguaz arduratu 1560a arte gaztetxo zelako oraindik. Halere, 1564an gure Bernard Laheteren semea Joanes prokuradore jenerala zen, eta eliza erreformatu-ko Guilloche kontseilariaren lehengusua. Hau dela eta katoliko zenbaitek salatu egin zuten⁶ haren jauregia erreformatu iraultzaileen babeslekua bilakatua zelako, eta istilu hanitz pairatu zituen kausa honengatik. dena den, Parisen hil zenean 1572an Bordeleko Parlamentu osoak parte hartu zuen hileta elizkizumetan, zeinek adierazten duen argi eta garbi zein estimu handitan zeukaten bordeleko hiritarrek gure Joanes⁷.

Hemen interesatzen zaiguna, ordea, bere aita Bernard da, zeren honek bildu zituen, bederen, bi poeta handiren laudorioak. Bata Beñat Detxepare, lehen euskal liburu inprimatuaren egilearen partetik, eta bestea Eustorg de Beaulieu garaian poeta ospetsuaren aldetik.



Rregueren aduocatu videzco eta noblea
 ri virthute eta honguciez complituyari
 bere iaun eta iabe Bernard Leheteri ber
 nard echeparecoac haren cerbitzari chi
 piac gogo honez goraynci baque eta of
 sagarri Ceren bascoac baitira abil animos eta gentil
 eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan lettratu
 handiric miraz nago iauna nola batere ezten assayatu
 bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait
 obra eguitera eta scributan imeitera ceren latin publi
 ca mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn scri
 batzeco hondela. Eta causa honegatic gueldit zenda a
 bataturic eceyn reputacione vague eta berce nacione
 oroc vste dute ecin denfere scriba dayteyela lengoage
 hartan nola berce oroc baitu te scribatzen beryan Eta
 ceren oray çuc iauna noble et naturazcoac beçala bay
 tuçu estimatzen goratzen eta ohoratzen heuscara çu
 ri neure iaun eta iabia beçala igorten darauritzut heu
 scarazco copblabatzurene ignoranciaren araura egui
 nac. Ceren iauna hayec iqhussiric eta corregituric pla
 zer duçun beçala irudi baçautzu imprimi eraci diça
 çun eta çure escutic oroc dugum ioya ederra Imprimi
 turic heuscara orano içan eztena eta çure hatse hon
 netic dadin aitzinerat augmenta continua eta publica
 mundu gucietara eta balcoec berce beçala duten be
 re lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer har
 ceco solaz eguitemo cantatzeco eta denbora igaraiteco
 materia eta ginendire nec gueio duten causa oboro ha
 ren abançatzeco eta obligatu guiren guciac geyncoari

A ij

Honelaxe hasten du Detxeparek, justuki, hain ezaguna den bere eskaintza :

Erregueren advocatu vitezco eta nobleari virtute eta hon guciez complituyari bere iaun eta iabe Bernard Leheteri bernard echeparecoac haren cerbitzari chipiac gogo honez gorayncy baque eta osagarri...

Aurreraxeago euskalzaletzat jotzen du, noski, alegia, euskara ohoratu duela abokatu bordelesak, seguruen inprimatze baimena lortzeko bitartekari izanen baitzen, hitzokina :

Eta ceren oray çuc iauna noble eta naturazcoac beçala baytuçu estimatzen goratzen eta ohoratzen heuscara çuri neure iaun eta iabia beçala igorten darauritzut heuscarazco copla batzu...

Bukaeraldean koplen helburua honelaxe agertzen digularik :

... eta bascoec bercec beçala duten bere lengoagian scribiz cerbait doctrina eta plazer harceco solas eguïteco cantatzeco eta denbora igaraiteco materia...

Nabari denez, musikak eta kantak berekin dakarren plazera ere ez zegoen *coplac* idaztean egileak zituen helburuetarik at. Ez naiz honetaz gehiago mintzatu aski baitira aritu ni baino lehenago hainbat eta hainbat kritikari, tartean Haritschelhar jauna bera. Mintza nadin, beraz, Eustorg de Beaulieu, honek ez hitz lauz baizik bertsoan, aitzinago emango dugun ehun bertsoletroko poema eskaini zionez gure Bernard Laheteri.

Eustorg de Beaulieu, Beaulieu-sur-Mémoire-n jaio zen 1495ean. Bere ama Jeanne de Bosredon deitzen zen, eta umezurtz gelditu zen oso gazte, zaindariak diru guztiak xahutu zizkiolarik. Bordeleko parlamentuaren aitzinean salatu zuen, bai abokatuari bai eta epaileei bertsoak zuzendu zizkielarik, 1529an justizia lortuz.

Urte honetan plazaratu zuen Bordelen *Les gestes des solliciteurs* poema liburuia, non apez bezala, *prestre*, ageri zaigun eta non tribunaletako hainbat jende kritikatzan dituen.

Garai honetan Tulle-n bizi zelarik oso ospetsua zen teatrogileen artean bere ausardia eta literatur talentuak zirela eta, zenbait antzerki idatzi zuelarik honako tituluak zutenak : *Histoire de l'enfant prodigue, Le murmure et fin de Choré, Dathan et Abiron...*

Esan bezala Lehetek babestu zuen, eta honen alaba Margaritaren maisu ere izan zen⁸. Gero François de La Tour, Turenne-ko bizkontearen zerbitzura igaro zen, eta 1536an Lyon-era Charles d'Estaing-endako gomendiozko gutun batekin. Etxerik hoberenetan errezibitu zuten, Hélène de Gondi-ren irakasle izan zen eta Lyon-en 1537an *Divers rapportz, contenant plusieurs rondeaux, dixains et ballades*⁹, argitaratu zuen, non amodiozko eta laudoriozko kantak ematen zituen, hala nola andere gorputzaren zazpi soin-armei buruzko bertsoak, askeegizat jo zirenak.

Eliza erreformatuarekin harremanetan zen, eta beraz, bai Erasmoren ohoretan bai eta Margarita Nafarroakoren alde bertsoak idatzi zituen, eta Mélancton-en lantxo bat itzuli zuen. 1537ko maiatzaren lehenean Genève-n babestu zen, bertan urte bat emanez, ondoren Lausanne-ra teologia ikastera joan zelarik. 1540an Bernan zen, eta artzain hautatu zuten Thierrens, Vaud-eko lurraldean, bertan

zazpi urtez biziz, eta bai polemika lanak bai kanta ezpiritualak idatziz, hala nola San Pabloren gutunak eta Psalmoak itzuliz. Garai honetan, hots, 1546. urtean plazaratu zuen *Chrestienne resjouissance*¹⁰. Titulu luzean dioen bezala, apez, musikari eta organistatzat jotzen zuen bere burua. Liburu honetan 160 kantu ageri dira, zeinen hitzak eta musika sortzeaz harro sentitzen den. Halere Paul Meyer¹¹, kritikariak dioenez, ez ziren hain originalak, garaian modan zirenetik imitatu baitzi-tuen bai bertsoak, - batzuetan hitzez-hitz kopiatuz, bai eta doinuak. Zenbait kantatan aitasaindua, fraideak eta peregrinazioak kritikazten ditu oso modu bizian. Eustorg Bâlen hil zen 1552eko urtarrilaren 8an.

Hona Eustorg de Beaulieu-k Bernard Leheteri eskainitako poema :

Jadis envoyée de par l'Auteur à scientifique & Tres-prudent Seigneur, Monsieur Maistre Bernard de Lahet, Advocat du Roy en sa Court de Parlement à Bordeaulx.

- Combien que Craincte en t'escripvant s'avance
De m'appeller Fol, plain d'oultrecuydance,
Espoir me poulse & me dict : Tu fais mal
- 4 Si tu te craintz q'ung cueur Noble & Loyal,
Tant enrichi de vertus à souhait
Comme celuy de Bernard de Lahet,
Aye en desdain la teneur de ta lettre,
- 8 Quoy qu'elle soit en rude stile & metre ;
Et (que plus est) qu'il soit en dignité
(Non sans merite) & grande auctorité,
Car ja pour ce ne t'en tiendra à mespris,
- 12 Et n'en seras aulcunement repris,
Joinct que les Biens, & les Honneurs du monde
N'ont rien changé ses meurs & sa faconde,
Et ne fut onq plus doux & liberal
- 16 (Avant qu'il feust Advocat general)
Que maintenant, sellon ceulx qui le hantent,
Et à toute heure au pres de lui frequentent.
Or ce voyant, j'ay dict à Crainete & Peur
- 20 Qu'en despit d'eulx je prendrois le labeur
D'ung mot t'escripre en lourde Rymasseure,
Voyant que Espoir (que maintz nourrit) m'asseuré,
le suppliant pardonner (toutesfois)
- 24 Ma folle audace, au moins pour ceste fois,
Combien que croy que trop ingrat seroye
S'à tout le moins ce coup ne t'escripvoye,
Veu les proffitz, les biens & les honneurs
- 28 Que j'ay receupz de toy en lieux plusieurs,
Sans que jamais te feisse aulcuns services
Dignes en rien de tant de benefices ;
Entre lesquelz j'ose bien reciter

- 32 Que je t'ay veu pour moy solliciter
Et'veoir mon sac, Puis en faire sermon
Au bon seigneur Monsieur de saint Symon
Qu'en mon proces lut commis Rapporteur,
- 36 Dont (grace a Dieu) j'euz par son rapport heur,
Car me garda sans faveur ne malice
Tresbien mon Droict en forme de Justice.
Mais les Raisons de droict que tu me feiz,
- 40 A sçavoir mon si j'en feiz mes proffitz :
Je te prometz que ouy, tant que de choses
Ne d'aultre piece en mon dict Sac enclose ;
Et y parut, dont j'en mercie Dieu,
- 44 Qui me guida te trouver en ce licu.
Tant d'aultres Biens j'euz par ton acointance,
Et de Faveur, que je n'auroys puissance
Le desservir de cent ans ne de plus,
- 48 Mais Dieu (qui peult) parfaire le surplus.
Je pense fort si ton cueur se delecte
(Cornme j'ay veu) au Jeu de l'Espinete ?
Et s'aymes tant le doux bruyt Organique
- 52 Cornme aultres fois, & la douce Musique
Où je t'ay veu prendre tant de plaisir
Que bien souvent, ains que t'aller gesir
(Pour de soucy & peyne estre delivre),
- 56 Si tu trouvois de Musique aulcung Livre,
Toy, Blaise, & moy, chantions jusque à my nuyct,
Sçachant que Dueil ne profite mais nuict ?
Et, pour plus estre à la Musique enclin,
- 60 Tu t'aconctoys de Clement Jennequin
Et d'aultres maintz, toutz gens d'experience,
Et où gisoit Musicalle science.
C'estoit en l'An mil cinq cens vingt & neuf,
- 64 Q'ung pain d'ung liard n'estoit plus gros q'ung ceuf ;
Voire ne fut cent ans avant Cherté
Telle que alors, ne si grand Paovreté.
Ce non obstant, à tes Coustz & Despens
- 68 Tu tins Maison ouverte à plusieurs Gens.
J'en suis Tesmoing qui ne le puis nyer ;
Pareillement maistre François Cornier
Et maistre Aubert du Pré, aussi la Chausse
- 72 Et aultres maintz ayant part à la Saulse.
Je Ry souvent lors que je considere
Le passetemps que tu euz d'ung petit Heere
Que j'achaptay pour de ça m'en venir,

- 76 Du quel ung jour (s'il t'en veult souvenir)
Je euz belle peur à cause d'une Bulle
Ou d'ung Papier en forme de Cedulle
Que quelque Gueux vint à ton huys poser,
- 80 En declairant qu'il venoit se opposer
A mon marché & achapt du dict Heere,
Lequel Rapport, certes, ne me pleust guere,
Et feuz long temps (comme sqais) sans respit,
- 84 Fantasié & tout plain de despit.
Mais peu apres le Cueur si me alla dire
Que ce n'estoit q'ung marché faict pour rire,
Et que à tes gens (pendant nostre Repas)
- 88 L'avoys chargé pour retarder mes Pas,
En me monstrant que encore ma presence
Ne te faschoit, ne chez toy ma despence.
Noble Seigneur, pour resolution,
- 92 Par cest escript te fais relation
Que pour affin que Ennuy de moy recullc.
Suis à present en la ville de Tulle'
Tu la cognois, Pour ce n'en dy rien plus,
- 96 Te suppliant que je ne soye exclus
De ta memoire, encore que ne ays veu signe
(En mon endroit) dont de ce je soys digne ;
Et me commande en toutz lieux ton vouloir,
- 100 Car de ce faire as sur moy le pouvoir.

Aski adierazgarriak direla uste dut ehun bertsolerro hauek, zeren ikusten ditugun Bernard, Eustorg eta Blaise delako bat (nor ote ?) bildurik eta gauerdiraino kantatzen : *Toy, Blaise & moy, chantions jusque à my nuict* (57.bl.). Eta Clément Jennequin¹² (sic), musikari handia lagun zutela. Nabarmen da, bere etxea, mende bat geroago Bertrand d'Etxauzena bezalaxe artisten babesleku izan zela. *Tu tins Maison ouverte à plusieurs Gens* (68. bl.), dio zehazki laudoriozko koplak, aipatuz François Cornier eta Aubert du Pré¹³ prokuradoreak.

Kantatuko ote zituen Bernard Lehetek bere Bordeleko jauregian euskal kantak Beñat Detxepareren konpainian ? Neretzat ez dago dudarik baietz, zeren baitirudien Lehetek, Cornier-ek eta du Pré-k Bordeleko parlamentuan goi-kargu zirenak lagun talde eder bat osatzen zutela, musikazale amorratua zena, eta zeinen sarao eta saltsetan, antza denez gure lehen poetak noizpait parte hartuko zuen, zalantzarik gabe. Guzti hauek eta beste zenbaitek osatuko zutekeen, ziuraski, Bordeleko talde humanista eta errenazentista, tamalez gutxi ezagutzen duguna, eta zeinen artean Clément Marot-en¹⁴ eragina nabarmena den.

Ez litzateke noski gure poetaren koplen iturriak eta nondikakoak, poetikotasun bideak aztertzeo ikerketa lerro galdua Bordeleko errenazimendu garaia zertxobait gehiago arakatzea. Guk hemen urrats bat besterik ez dugu eman, eta

hurrengo lanek agian baieztatuko dutelakoan iritzi hau, hemen amaitzen dut solas labur hau.

Résumé :

Cet article est consacré à Bernard Lehete, mécène basque installé à Bordeaux au XVI^e siècle. Originaire d'une famille noble de Sare, on sait qu'il était étudiant en 1514 à Toulouse, qu'il fut avocat général à Bordeaux où il mourut en 1562. Dechepare, auteur du premier livre basque, publié en 1545, le remercie d'avoir élevé et honoré la langue basque. Ce travail donne aussi le texte peu connu d'une pièce en vers de Eustorg de Beaulieu (1495-1522) à la gloire de Lehet. On peut donc penser que Lehet abrita à Bordeaux un groupe d'artistes et écrivains chez qui l'influence de Marot ne paraît pas négligeable.

Patri URKIZU
(UNED, Madrid)

Notes

1. *Linguae Vasconum Primitiae per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem sancti michaelis veteris*. Bordeaux, François Morpain, 1545.
2. Alfred Lassus, "Les maison nobles, infançonnes autres de Sare et leurs occupants", in Jacques Antz et al., 1993, *Sare*. Ekaina, 179-211.
3. M. A. Pegg (ed.), 1964, *Eustorg de Beaulieu, Les Divers Rapports*. Genève, Droz, 239.
4. *Archives Historiques du Département de la Gironde*. Paris. Alphonse Picard et fils, 1901, Vol., xxx, 39.
5. Fond 1B, 1287-1538. Archives de la Gironde. Registre d'enregistrement à Bernard de Lahet de l'office d'avocat général, vacant par la promotion de Thomas Cousinier, à l'office de Président du Parlement de Provence. fol. 158.
6. Lettre contre Lahet. *Archives Historiques de la Gironde*, X, X. 1487-1567. Registre des enregistrements. n.5. fol. 117v.
7. Jean Lahet (1533 - Paris, 1572)
8. *Epistre de L'Autheur à noble & Chrestienne Damoyse, Marguerite de saint Simon en Xaintonge, jadis son escollier*. Chrestienne resjouissance..., 1546, 200.
9. *Les divers rapportz contenantz plusieurs rondeaulx, Dizains, Ballades, Chansons, Epistres, Blasons, Epitaphes, & aultres ioyeusetez*. Le tout compose par M. E. de beaulieu. 1540. On les vend a Paris en la rue neufve nostre Dame a l'escu de France. Par Alain lotrian.
10. *Chrestienne resjouissance*, composée par Eustorg de Beaulieu, jadis prestre, musicien et organiste en la faulce église papiste et depuis, par la miséricorde de Dieu, ministre évangélique en la vraye église de J.-C. 1546.
11. *Revue critique*, 5 octobre de 1872.
12. Clément Janequin (Châtelleraut 1485 ing. - Paris, 1558), musikaria, François de Gondi, Lorraineko kardinalaren eta François de Guise-ko jaunek babestua, hala nola Henri II.aren konpositorea. 1505az geroztik Bordelen ageri da Lancelot du Fau, Parlamentuko lehendakari eta 1515az gero Luçon-go apezpiku izango zenaren inguruan. 1523an Jean de Foix, Bordeleko artzapezpikuak babestu zuen eta 1525ean Saint Emilion-en Fronde-ko kalonje izanen da. Bere obra nagusia hitu, lau eta bosta ahotsetara diren berrehun eta hirurogeita hamabost kanteak osatzen dute, 1520an dagoeneko ospetsu, eta musika profanoan maisu, jenero guztiak landu zituen, lirikoa, narraziozkoa, erotikoa, teatrala... bere kantak eskuzkribuz-eskuzkribu zabaltzen zirelarik Europan barrena, eta batipat 1528an moldiztegitatu *La Guerre* obraren ondoren. Bere liburu famatuena artean aurki daitezke : *Chansons* (1528), *Verger de musique* (1559)...
13. Albert du Pré 1535etik 1549ra doan prokuradore zerrenda batean ageri da (*Actes de l'Académie des sciences, belles lettres et arts de Bordeaux*, 1869)
14. Henry Guy, *Clément Marot et son école. Histoire de la poésie française au XVI siècle*. Paris, Champion, 1968.